

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2024ko urriak 18 · 1329 zenbakia

GERTUKOA ETA OSASUNTSUA
HERRIA ELIKATZEN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!

**BIZI
ASEGURUA**

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKi
ASEGURUAK
Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**

ARRATE HOMES · EIBAR

PISU PILOTU BERRIA



Ez imajinatu, hurbildu eta utzi harritzen



Obra berriko etxebizitzak:

Garajea | Gimnasioa | Gourmet aretoa | Trastelekua

 **Neinor** HOMES

900 11 00 22 · neinorhomes.com



ASTEKLIMA 2024

Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

2024ko urriaren
18tik 27ra

Urriak 19. – KONTSUMO ARDURATSU ETA EKOLOGIKOAREN II. AZOKA

Untzaga plazan (10:00etatik 14:30era)

Tokiko produktu eta elikagai ekologikoen salmenta, haurrentzako tailerak, saskien zozketa, erakusketak, etb.
– 11:30 Debabarrena Mankomunitateak gaikako bilketan sentsibilizatzeko tailerak
– 12:00 EKO errezetak Miriam Chefintegratibarekin tailerra eta dastaketa saioa

ANTOLATZAZALEAK: BIOLUR ETA EGOIZIA

Urriak 20. – KLIMA AZOKA

Untzaga plazan (11:30etik 15:00etara)

Euskal gizartearen klimaren alde mobilizatzeko azoka ibiltaria (haurrentzako tailerak eta jolasak). Hizkuntza: elebiduna.

ANTOLATZAZALEAK: IHOBEE ETA EVE

ASTEKLIMAKO INTERESGUNEAK

URRIAK 18-27

Udal Liburutegia (Portalea)

Klima-aldaketari buruzko liburuek eta helduentzako zein haurrentzako ikurketa-gidak

Urriak 26. – HAURRENTZAKO IPUIN

KONTALARIA: "Bazen behin oihana zikin bat"

Portaleko Areto Nagusian (18:00etan / 50 minutu)

Ipuin honen bidez, ikusleen irudimena landuko da, animaliak, klima eta naturaren garrantzia ezagutuz. Hizkuntza: euskaraz.

– **Ikusleak:** 3tik 7 urtera artekoak
– **Izen-ematea:** urriaren 21etik 24ra

<https://formularioak.eibar.eus/eu/oihanazikinbat/>

Urriak 27. – INTERPRETAZIO IBILBIDEA

Ixuan, Urkorako aparkalekuan (09:30etik 16:00etara)

Pagaegikorta proiektua: botanika, baso-kudeaketa eta klima aldaketa lantzeko. Hizkuntza: elebiduna. Zailtasuna: baxua, 4 km.

– **Plaza mugatuak.** Izen-ematea: urriaren 24ra arte.
Plazaren onarpena jaso behar da. info@lurguia.org

KOLABORATZAZALEAK: EIBARKO BASO BIZIAK ETA LURGAIA


 Biolur



www.asteklima.eus



EIBAR



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Azataporruea Kontsumo Elkarteak eraldatu eta Basagunea sortu dute. Kontsumo ekologiko eta hurbila ardatz dituen egitasmoa da eta Erreal Plazan postu finkoa zabalduko dute San Andres egunaren inguruan.

etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



PSE-EE EAJ udal itunaz

Asteazken arratsaldean ...eta kitto!-ren interneteko atarian irakurritako albistearekin izan nuen lehenengo sorpresa: "PSEk eta EAJk gobernu akordioa lortu dute Eibarko Udalerako". "Zer?" eta "Nola?" erako galderak irten zitzaizkidan bat-batean. Azken urte hauetako udal batzarraren ia edozein saio ikusi baduzue (erraza da, udal webgunean daude saioen bideoak), oso nabarmena da PSE-EE eta EAJren zinegotzien arteko ezin-ikusia edo behintzat kanpora begira ematen duten itxura. Horregatik nire harridura. Atzo ostegunez akordioaren berri eman zuten eta kargu-banaketa nola egingo duten azaldu zuten.

Seguraski ni izango naiz horrelakoak espero ez dituen bakarra. Errebalen inoentzea gertatu zenean, nire botoa Aralarrera joan zen. Orduan egindako oposizio lana oso ona iruditu eta garai hartako udalbatzan gai horri dagokionez gauzak era garbian egin zituen bakarra iruditu zitzaidalako. Beranduago EH Bildura joan zen nire botoa. Udalean benetako aldaketa lortzeko modu bakarra zela uste izan nuelako. Azkenengo honetan EAJra joan zen nire botoa. EH Bilduk PSE-EEekin trenbidearen gaineko pasealekuaren estaltzea zela-eta izan zuen iritzi aldaketagatik batetik, eta udalbatzarraren bileretan oposizio gogorra EAJk egiten zuela iritzita.

Orain berriz, eta alderdietako bozeramaleen arteko hitz-potoloen elkar-trukea gertatu zen azken udalbatzarretik hamabost egun eskasera, bai kontizu, adiskidetu eta elkarrekin gobernatzeko akordioa. Hamaika ikusteko jaino gara ba! Gutxi ulertzen nuen politikaz, eta orain gutxiago ulertzen dut. Agian ez dut gertatu dena sinistu nahi. Goiko bulegoetatik etorritako aginduaren fruitua dirudi akordioak. Eta udala, berriz ere, oposizio gabe gelditu da.

Elkarrekin-Podemosek ordezkatzen duen Armorika da erromatarrei eusten dien galiar herrirka bakarra, EH Bilduk ere azkenaldian akordio zabalak lortu baititu PSE-EEekin, azkena orain dela hamabost eguneko udalbatzarraren azaleratu zen Txonta zela-eta.

Ez dakit oraingoan gurutze hau eramateko Arrateko Amari pazientzia eskatzeak ezertarako balioko ote duen.

Mikel Larreategi Arana

Hortik esanak



Ni munduko gizarteetan eleaniztasunaren aldekoa naiz; Bibliak dioen arren zigorra dela. Nire planteamendua hauxe da: bakoitzak estudiantzen ditu bi hizkuntza eskolan, bata da norberaren herrikoa eta bestea lingua franca. Urruti gaude helburu horretatik, baina nik hori proposatzen dut. Azken aldian, pertsonala kontratatzean, epaileek anulatu egin dute euskara ezagutzea baldintza izatea. Ez dugu soberania linguistikorik; terkoak gara eta pazienteak ere bai, baina euskararena urgentea da. Eta badaiteke eztabaidatu, konstituzioa aldatu gabe, botere zentralarekin. Holaxe autonomoak izango ginatke hizkuntzan; hau da, guk egingo genuke, errepresio barik, baina baita zentzunarekin ere, hizkuntzari dagokion legedia. Eskumena traspasatuta. Suitzan lau kanton daude, eta kanton bakoitzak bere hizkuntza du, eta oso ondo arreglatzen dira denak elkarrekin. Hori ez da utopia.

ROMAN GARMENDIA, filosofoa

Habanan izan diren askok diote han arraza beltzeko askok dituztela euskal abizenak: Arizmendi, Eguzkiza, Etxebarria, Urrutia... Euskaldun jabearen hazienda handi bateko esklaboen ondorengoak direlako. Eta euskaldun horrek nola lortu zuen ba hazienda handia? Egungo modu berberaz, besteei zukua ateratzen. Horietako batzuk Euskal Herrira itzuli ziren guztiz aberastuta eta, bekatuena ordainetan, Elizako kanpandegia edo organoa ordaindu eta Indiano enea etxeak eraiki zituzten, denek gurtu eta omendu zituzten. Horri deitzen zaio Indianoaren sindromea: urteetan jopuuuta izan eta aurrean jartzen ziren guztiei zukua ongi atera ondoren, laztanak nahi izateari.

JOSE IGNAZIO ANSORENA, musikaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PARTIAN IZAN → Zeozertan parte hartu, tarteko izan. "Droga zatzer hartan, partian zan".

PARTU → Jokoetan eta jolasetan, berdindu. "Markia partu bakarrik ez, partutakua ondu be egin dau". Zentzu zabalagoan, besteek adinako mailara heltzea ere esan nahi du. "Hil honen hasieran erabagittako maillia partu dot; ia oin ontzen doten".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 18
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 19
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
DOMEKA 20
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 22
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
EGUAZTENA 23
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 25
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Agustin Olabarria Aranburu.**
75 urte. 2024-10-09.
- **Lorenzo Ojanguren Solozabal.**
77 urte. 2024-10-09.
- **Mari Jose Errasti Barrenetxea.**
78 urte. 2024-10-10.
- **Belen Egiguren Arrizabalaga.**
74 urte. 2024-10-10.
- **Carmen Elordi Miragaya.**
95 urte. 2024-10-11.
- **Jose Gallego Nogueira.**
90 urte. 2024-10-11.
- **Dori Pinilla Fernandez.**
89 urte. 2024-10-11.
- **Iñaki Azkarraga Iarritu.**
87 urte. 2024-10-12.
- **Montserrat Cuadrado de Aranda.**
65 urte. 2024-10-12.
- **Maria Landa Manterola.**
95 urte. 2024-10-12.
- **Esteban Bilbao Aranburu.**
90 urte. 2024-10-13.
- **Amalia Mallabiabarrena Arregi.**
89 urte. 2024-10-15.



Herri batetik bestera ibiliko den Klima Azoka erakusketa interaktiboa domekan egongo da Eibarren, Untzagan, goizeko 11:30etik 15:00era bitartean.

Klima eta Energiaren Astearekin bat egingo dugu, gaurtik hasita

Aurten *Ekintza oro, txikia bada ere, garrantzitsua da* goiburuari jarraituko zaio. Eibarren egingo den programazioarekin hasteko, bihar goizean Kontsumo Arduratsua eta Ekologikoaren Azokaren bigarren edizioa egingo da Untzaga plazan, 10:00etatik 14:30era. Biolur Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Elkartek eta Egoaizia GKEak antolatu dute azoka, *Ekoiizpen duina, kontsumo herrikoia* goiburuarekin, eta Eibarko Udaleko Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailarekin eta Garapenerako Lankidetzara Arloarekin, Debemen Debabarreneko Landa-Garapeneko Elkartarekin eta ENNEK-Ekolorra Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluarekin elkarlanean. Eta domekan, 11:30etik

15:00etara, Klima Azoka izeneko esperientzia interaktiboa egingo da Untzagan (euria bada, Errebal Plazan), “herritarrak klima-aldaketari aurre egiteko beharraz mobilizatu, hezi eta kontzientziatzeko”. Azoka ibiltari horretan hainbat gai (klima-aldaketa, etxeko ohiturak, mugikortasuna...) jorratuko dituzten karpeta barrena ibilbidea egitera gonbidatuko dituzte herritarrak, eta bertaratzen direnei gai horien inguruko banakako konpromiso bat formaltzeko aukera emango zaie. Arduradunen arabera, “dinamika ludikoa izango da. Karpa bakoitzak jolasak ditu, eguneroko bizitzaren hainbat alderdiri eta klima aldaketan duten eraginari buruz sentsibilizatzeko”.

Bestetik, Udal Liburutegiarekin elkarlanean, *Bazen behin oihan zi-*

Gaurtik hasita eta urriaren 27ra bitartean Asteklima Klimaren eta Energiaren astea egingo da bosgarrenez Euskadin, eta Eibarko Udalak ekimenarekin bat egin du beste behin. Horrela, hainbat jarduera prestatu ditu, Ingurumen sailaren bidez eta lhoberen laguntzarekin, “eibartarrak gaur egun dugun erronka handienetako baten inguruan sentsibilizatzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko konpromiso pertsonalak hartzearen garrantziaz ohartarazteko”.

kin bat ipuin-kontakizuna eskainiko dute urriaren 26an. Eta hurrengo egunean (hilak 27), Lurgaiia Fundazioaren eta Eibarko Baso Bi-ziak elkartearen laguntzarekin, *Botanika, baso-kudeaketa eta klima-aldaketa (Pagaegikorta proiektua)* izeneko ibilbidea egingo da, Udalak iaz erositako Pagaegikortako lursailean baso autoktonoa berreskuratzeko egiten ari direna bertatik bertara ikusteko. Jarduera herritar guztientzat zabalik izango da, eta lau kilometroko ibilbidea egingo da (4 ordu inguru), Ixua-ko aparkalekutik abiatuta. Plazak mugatuak dira eta urriaren 24ra arte eman daiteke izena, info@lurgaiia.org helbidera idatzita (partehartzaileen izen-abizenak, adina eta harremanetarako telefono bat adierazi beharko dira).

Egitaraua biribiltzeko, Udal Liburutegian Asteklimari buruzko interesgunea jarri dute, klima-aldaketarekin lotutako hainbat libururekin, eta Eibarko sei ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek eskoletan bertan emango diren tailer zientifiko batzuetan hartuko dute parte.



Andoni Amezttoy da Eibarko Udalaren Kirol Saileko zinegotzi berria

Andoni Amezttoy eibartarra Eibarko Udaleko gobernu-taldera batu da, Alberto Albisteguik Gipuzkoako Batzar Nagusietako talde sozialistaren bozeramaile izateko zinegotzi karguari uko egin ostean. Amezttoy irailaren 27an hartu zuen Eibarko zinegotzi-kargua, eta aurrerantzean bera izango da Kirol Saileko arduradun politikoa.

Amezttoy 1974an jaio zen, Eibarren. Doitasunezko mikromekanikako prestakuntza du, eta metalurgiaren sektorean ez ezik, beste hainbat arlotan ere aritu da: bezeroarentzako arretan egin du lan, automobilgintzaren sektoreko komertzial gisa, eta ordezkari komertzial karguan ere ibilitakoa da. Udaletik adierazi dutenez, “gainera, kirolarekin lotutako enpresa bat sortu zuen, eta horrek kudeatuko duen arloaren ezagutza sakona emango dio”.



Ezkurrak biltzeko irteera antolatu dute domekarako

Eibarko Baso Biziak elkarteak ezkurak eta haziak biltzeko irteera pedagogikoa antolatu du domekarako. Untzagan elkartuko dira, 10:00etan, bertatik abiatzeko. Irteeran parte hartzen dutenek batutako ezkurak ondo gordeko dituzte, ondoren ernaltzeko.

PSE-EE eta EAJ-PNV ados jarri dira Eibarren koalizio-gobernu “egonkorra” osatzeko

Horren berri eman dute aste honetan, eguaztenean udaletxean egin-dako prentsaurrekoan Jon Iraola alkateak, Ana Telleria PSEren Eibarko idazkari nagusiak, Eva Juez Eibarko Uri Batzarraren buruak eta Alberto de la Hoz zinegotzi jeltzaleak. Adierazi dutenez, “udalerriri egonkortasuna ematea da helburua, herritarren interesen defentsa indartuko duen gobernu indartsu eta eraginkor baten bidez”. Horrekin batera, gure hiriaren etorkizunera begira “funtsezko” proiektu nagusiak bilduko dituen “irismen luzeko adostasuna” lortzea nahi dute. Alderdi biek azaldu dutenez, hilabeteak eman dituzte bilerak egiten, ados ipini eta akordioa lortu arte. Proiektu eta ikuspegi ezberdinak izan arren, alderdi biek adostasunaren alde egitea erabaki dutela esan dute, “gobernu-talde egonkorra osatu eta, horrela, Eibar eta bere herritarren alde elkarrekin lanean aritzeko”. Legegintzaldiari

geratzen zaizkion bi urte eta erdian, Eibarko Udalean koalizioan agintzeko aukerarekin pozik azaldu dira talde bietako ordezkariak.

Koalizio-gobernuaren buru Jon Iraola alkatea izango da. Ana Telleriak (PSE-EE) lehen alkateorde kargua beteko du, eta bigarren alkateordea EAJ-ko kide bat izango da. Horrela, tokiko gobernu batzarrerara lau ordezkari sozialista eta hiru jeltzale batuko dira. EAJ-PNVren udal taldeak bere gain hartuko dituen ordezkariak, besteak, honakoak dira: Berdintasuna, Gazteria, Euskara, Mugikortasuna-Trafikoa, Ingurumena eta Ego Ibarra. Gainerakoak sozialisten esku egongo dira.

Akordio honek udal gobernuaren gehiengo osoa bermatuko du, Eibarko Udalean dauden 21 zinegotzietatik 14 alderdi sozialistarenak eta jeltzaleenak dira eta (PSE-EEk 8 zinegotzi dauzka eta EAJ-PNVk 6).



Odisea elkarteak "Ulisesen Jokoak" jardunaldiak antolatu ditu biharko

Bihar egingo dira hirugarrenez *Ulisesen Jokoak* mahai-jokoek jardunaldiak, Odisea elkarteko eskuetik. Errebal Plazan izango dira eta egitarauak egun osoa beteko du, 08:00etatik 20:30era. Aurrekoetan bezala ludoteka, txapelketak, rol-jokoak eta beste jarduerak batzuk egongo dira. Egun osoan zehar mahai-joko ezberdinetan aritzeko aukera egongo da eta, horrez gain, demoak, txapelketak eta bestelako jarduerak eskainiko dituzte Odisea elkarteko boluntarioek. Azaldu dutenez, "goizez Flames of war erakustaldi-parti-

dak ere izango ditugu, 09:30etik 13:30era. Joko honetan jolasten ikasteko aukera ez galtzeko gomendatu nahi diogu jendeari. Horrekin batera, Bad Roll Gameseko lagunak egun osoan zehar egongo dira gurekin, nahi dutenei beraien Punkapocalyptic jokoak azaltzeko prest. Eta Trio eta Crokinole lehiaketak ere egingo ditugu". Izen emateko eta informazio gehiago izateko 654 839 645 telefonora deitu edo, bestela, elkartearen webgunean (www.asociacionodisea.com) zein sare sozialetan begiratu daiteke.

Gernika-Palestinak plazetan elkarretartzera deitu ditu herritar guztiak

Urtebeteko balantzerako bilera egin eta gero, urriaren 21ean, 19:00etan, Euskal Herriko udal txeko guztien aurrean elkarretaratzeko egiteko deia luzatu dute Gernika Palestina herri-ekimenetik. Eibarren Untzagan izango da elkarretaratzeko, Untzagan, *Genozidioa Stop!* goiburuari jarraituta.



Hauteskunde sistemiei buruzko hitzaldia eskainiko da gaur Ipuruako merkatu plazan

Gaur arratsalderako hauteskunde sistemen inguruko hitzaldia egingo dute Ipuruako Merkatu Plazan. Miguel Arroita jauregi arituko da bertan, 18:00etatik aurrera, eta sarrera librekoa izango da.

1962. urtean jaiotakoak Untzagan elkartuko dira urriaren 26an

1962an jaiotako eibartarrak urriaren 26an elkartuko dira, beraien "kinto" jaia ospatzeko. Jairako izena eman dutenak Untzagan, udal txeko arkupeetan elkartuko dira, 13:00ean.

77 urte betetzen dituztenek azaroaren 7an ospatuko dute beraien 'kinto' jaia

1947an jaiotakoek azaroaren 7an ospatuko dute euren jaia. Eibarko Kasinoan egingo dute bazkaria, 77 urteak ospatzeko, eta joan nahi duenak 65 euro sartu beharko ditu ES36 3008 0171 6452 1919 8628 kontu korrontean, izen-abizenak argi azalduta eta kontzeptu gisa "Kintada" ipinita.

Politika publikoari agur esateko gutuna idatzi du Josu Mendicutek

Josu Mendicute Rodriguez Eibarko EAJ-PNV udal taldearen bozeramaileak politikagintza lagako duela zabaldu zen atzo goizean, prentsan argitaratutako albiste batengatik. Mendicutek bere agurra beste modu batean izatea nahi zuen, baina albiste batean eta bestean zabaltzen zela ikusita, agur esateko idatzita zuen gutuna helarazi zigun atzo goizean bertan, eta testua bere osotasunean gure webgunean (www.etakitto.eus) kaleratu dugu.



Mendicutek “Sinistu” izenburuko gutunean dioenez, “kargu publikuotan dihardogunok gure onena eman behar dugu jendearen konfiantzia berreskuratzeko. Egia esan, hitzak ekintzen bidez berretsi, eta egiten dugun horretan sinistu. Akordio eta eztabaida danetan, emandako Hitzari eutsi nahi izan diot; eta esku-tik joan dira nire konbikzio pertsonalak eta EAJren posizioak. Harro nago herri ordezkari aritu izanaz, defendatu dudan guztian sinistu izanaz. Ezin daiteke sinesgarritasunik transmititu zerbaitetan sinisten ez denean. Horregatik, politikaren sinisgarritasunari uneotan egin diezaiokekan ekarpenik haundiena agur esatea da. Etapa bat itxi da, berri bat dator, eta ez dakit neri horren lidergoari eustea”.

2015eko ekainaz geroztik, ia bederatzi urte eta erdi eman ditu Mendicutek Eibarko Udaleko zinegotzi karguan, batzorde ezberdinetan, eta orain arte EAJ-PNVko udal taldeko bozeramailea izan da. Horrez gain, alderdi jeltzalearen Eibarko alkategaia izan da azkenengo bi udal hauteskundeetan, 2019ko ekainean eta 2023ko maiatzean.

Politikagintzatik beti Eibarren alde egiteko bere ahalegina ere ekarri du gogora: “Eibarrek bere burua berrasmatu behar du. Aberastasuna sortu, banatu ahal izateko. Hiri erakargarriagoa bihurtu ekintzailetzarako, hazteko, bizitzeko. Apalik, hori izan da nire ahalegina,

2015eko ekainaz geroztik, ia bederatzi urte eta erdi eman ditu Mendicutek Eibarko Udaleko zinegotzi karguan, eta orain arte EAJ-PNVko udal taldeko bozeramailea izan da. Horrez gain, alkategaia izan da birritan.

proiektu eraldatzaileak mahaigaineratuz, eztabaida berriak irekiz. Eibar hobeago bat amestu dut, eta horren alde borrokatu. Jarrantuko dut beste leku batzuetatik. Izan ere, Eibar onbideratzea zeregin kolektibo bat da. Konpromiso horri ez diot inoiz uko egingo”.

Agurtu baino lehen, geratzen direnei Eibarrek di-tuen erronkei aurre egiteko zortea opa die: “Politikan epe motzeko jolas larregi dago. Hortik ihes egiten ez badugu, ezingo diegu Eibarren erronkei aurre egin. Zortea eta arrakasta opa diet bide berri honi ekingo diotenei, beraien asmoak loratu daitezela, eta azken egunera arte, egin dezatela sinisten dutena eta sinetsi dezatela egiten duten horretan. Eibarrek merezi du”.



Arrate hotela erreka gainean eraiki zuten gerora. Argazkia inaugurazio eguneko da., hoteleko terrazatik egindakoa. Atzean Alfa ikusten da. FOTO PLAZAOLA

Isasi 10 zenbakian, atze aldean, harraska bat zegoen eta "kunbo" bat ere bazegoen bertan (upel moduko zerbitu). Gerra denboran, gordeleku moduan erabili zen. Ego Gainen zegoen "kunboa" eta hegazkinak zetozenean bertan ezkutatzen ziren.

Isasi ingurua; harraska erreka, korta eta etxeak

Agustina Askasibar Lauzirika
(1929 – 2018)



Agustina Askasibar Lauzirika Eibarren jaio zen, 1929ko abuztuaren 28an. Isasi kaleko 10. zenbakian jaio eta bizi izan zen 2000. urtera bitartean. Bertan izan zuten "ultramarios" denda. "Maria Txaltxaneko" izenez ezagutzen zuten denda. Ahizpa Apoloniarekin egin zuen lan bertan jubilatuta artean.

Agustina Askasibari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Zuen etxe atzekaldian, Arrate hotela daon lekuan, zer zeuan han?] Han eguan kunbo bat. Gure etxian ta beste etxe batian, guria zan hamarra ta bestian, hamabixan, tartian euan eskillarak. Ta handik juaten zan, han euan labadero bat, ta andrak ur hotzakin erropak garbitzera, harrixan gaiñian, ta hantxe danak abesten ibiltzen ziazen, umore onakin, pertsona zintzua baiña umore onakin. Beti kantu batian. Ta gero euan kunbo bat]. Handik kunbotik, ta gero gerra denporan, [ha kunbua ta ekan pues] zera refujixo moduan. Han gerra epokan, bonbardeuak, han, Ego gain, bota eban harrixa, edo... bonbia. Ta han egon ziazen herido asko. Ta danok abioiak etortzen ziazenian... "Ene abioiak!.. Hiru datoz!" ta korrikan, ta hantxe ezkutatzen gaiñazen.



Auto elektrikoak bogan

Auto elektrikoen salmenta gorantz doa munduan

Iraunkortasunaz eta karbono-isuriari murrizketaz gero eta kontzientekoak da gizartea eta ibilgailu elektrikoak etorkizuneko mugikortasunerako irtenbidetzat nabarmentzen ari da. IEAk, Nazioarteko Energia Agentziak emandako datuen arabera, ia hamalau milioi auto elektriko saldu ziren munduan, aurreko urtean baino %35 gehiago. Erakunde horrek egindako kalkuluen arabera, 2030erako merkatu gehienetan prezio baliokideak izango dituzte errektuntzako autoak eta elektrikoak eta 2035erako hiru autotik bi elektrikoak izango dira.

Zenbat auto elektriko mota daude merkatuan?

Gaur egun, darabilten teknologia-aren arabera, hiru ibilgailu elektriko mota nagusi daude merkatuan: Ibilgailu elektriko purua/bateriaduna, autonomia hedatuko ibilgailu elektriko (errekuntza motor txiki bat duena bateria kargatzeko) eta ibilgailu hibrido entxufagarria (propulsiotz elektriko eta konbentzionala uztartzen dituena).

Zenbat balio dute?

Espainiar estatuan, lau plazako auto elektriko merkeenak 18.000 euro ingurutan saltzen dira; bataz bestekoa, berriz, 34.000 euroren bueltakoa da. Baina auto elektrikoaren kostua kalkulatzeko garaian, beste hainbat faktore ere hartu behar dira aintzat, hala nola, erregaia eta mantentze-lanak. Erregaiari dagokionez, auto elektrikoaren 100 km-ko kostua 2-3 euro ingurukoa da; eta gasolinazkoarena, berriz, 9-12 euro bitartekoa. Mantentze-lanen kostua ere dezente txikiagoa da auto elektrikoaren kasuan, gasolinazkoa, diesela edo hibridoa baino, %29, %21 eta %25ekoa, hurrenez hurren. Hortaz, hasierako erosketaren gailentzea 6-7 urtean amortizatu daiteke.

Zer nolako autonomia du?

Modeloa eta bateriaren arabera da. Halaber, modelo berriek karga bakoitzeko 250-500km bitarteko autonomia izan ohi dute.

Kargaleku publikoak, pribatuak eta komunitarioak

Kargalekuak erabilera publikoko lekuetan daude baina, oro har, auto elektrikoak gauzez eta etxean kargatzen dira. Kargen %90-95 garaie partikular edo komunitarioetan egiten da, ahal dela gauzez, elektrizitatearen kostua txikiagoa delako. Karga-puntu pribatuaren kasuan, familia bakarreko garaieen kasuan, instalazioa 750-1000 euro bitartean kostatu liteke. Kargalekua komunitarioa denean, berriz, kasuistika askotarikoa da eta aukeratu den instalazio motaren arabera aldatzen da kontagailu kopurua, kostua, baimenak... Debegeak ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioaren inguruko eskuliburua diseinatu zuen, auzo-komunitateetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioen prozesuari eta inplikazio nagusiei buruzko informazioa emateko helburuarekin.

Dirulaguntzak

2021ean Espainiako Gobernuak Moves III plana onartu zuen auto elektrikoaren erosketak eta kargagailuen instalazioak diruz laguntzeko eta deialdia abenduaren 31ra arte izango da indarrean. Erosketen kasuan, 2.500 eurotik hasi eta 7.000 euro bitarteko laguntzak ematen dituzte. Kontsultatu laguntzen inguruko informazio guztia Energiaren Euskal Erakundearen webgunean.



Energia Bulego eskualdeko herritarren zerbitzura

Duela hiru urtetik martxan da Debarreneko Energia Bulego Birtuala, 2030 Agendaren baitan, bailaran energia berriztagarrien erabilera indartzeko helburuz. Bertan, aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen diete herritarrei nahiz enpresei, deialde.

Energia berriztagarrien arloan dauden aukerak (fotoboltaikoa, termikoa, geotermia, aerotermia, biomasa...), teiltatua birgaitzeko moduak edo berogailu sistemak, kontsumoa eta fakturak optimizatzeko bideak eta energiari lotutako beste hamaika konturen berri ematen dute. 2021etik 70 kontsulta baino gehiago erantzun dituzte eta 100 herritar eta enpresa baino gehiagori lagundu diete instalazioak bideratzen edo kontsumoa murrizten.

Online eta presentzialki

Bulegoak goizero eskaintzen du zerbitzua, online, telefono bidez edota presentzialki. Informazio gehiago Debegearen webgunean edo **943 82 01 10** zenbakira deituta.

Kontsumo ekologiko eta hurbilerako gunea

BIDEOA



Azataporrua Kontsumo Elkarteak bide berri bat hasiko du kokagune berrian, Errebal Plazan, eta izen berriarekin, Basagunea. Bere jarduna orain dela 13 urte hasi ondoren, egitasmoa eraberritzeko sasoi iritsi dela pentsatu dute eta sasoi berrietarako tresna berriak eskaini. Horrela, San Andres egunaren inguruan, aro berriari hasiera emango diote.

Elikadura-autogestioaren kezka zuen herritar talde batek jarri zuen martxan Azataporrua 2011n eta 13 urte hauetan proiektua hazi egin da. Gainera, behar berriak sortu dira eta gizartean hainbat aldaketa ere eman dira. Beraz, horri erantzuna emateko Azataporrua eraldatu nahi izan dute eta Basagunea da horren emaitza.

Basaguneak Azataporruaren filosofia eta funts berari eutsiko dio, baina hainbat aldaketa egingo dituzte. Batetik, elkarteak postu finkoa izango du Errebal Plazan. “Lehengo lokala txiki geratzen zitzazigun”, azaldu digu Eva Perez de Albeniz elkarteko kideak. Baina espazio falta ez da aldaketarako arrazoi bakarra, salmenta zuzena egiteko aukera emateaz gain, Errebalen beste hainbat ekintza garatzeko tokia ikusten dutelako. “Gure filosofia jendeari helarazi nahi diogu eta, horretarako, das-taketak, showcooking-ak, ikasta-



roak... egin nahi ditugu bertan”, zehazten du Evak.

Basagunearen atzean herritarrak daude. Eurek bultzatutako ekimena da eta, hazi egin den neurrian, bertan sortu den giza sareak garatu du proiektua. Horrela, jauzi hau emateko lantalde ezberdinak sortu dituzte, beharren arabera sortuak. “Gaur egun mantenu-talde bat martxan dago Errebaleko lokala prestatzen, hornikuntza-taldea baserri-tarrekin eta bestelako ekoizleekin harremanetan dabil produktuak ekarri ahal izateko, komunikazio-taldeak proiektua gizarteratzeko lana egiten dihardu, diru-kontuez arduratzen den beste talde bat dago eta dinamizazio taldea ere martxan da, ez dugulako Basagunea denda soil bat izatea nahi”, azaldu digu Aizpea Izagirrek.

Filosofiaren hamar oinarriak

Basaguneak dekalogo bat prestatu du bere filosofia azaltzeko. “Zer jaten dugun, jaten duguna nondik datorren, horrek naturan zein eragin duen... Ardura horiek dituen taldea gara. Beraz, hurbileko produktuak kontsumitzea nahi dugu, ekologikoak, ekoizleekin hartu-eman zuzena eduki...”, Evaren berbetan.

Hauek dira Basagunearen filosofiaren hamar oinarriak: bertan ekoiztu, bertan kontsumitu; zuzeneko salerosketa; elikadura ekologikoa; harremanak saretu; bazkide eta salmenta librea; gertutasuna produktuetan; baita harremanetan ere; elikadura osasuntsua bultzatu; ingurumenarekiko errespetua; kontsumo eredu birplanteatu; eta merkatu plazaren izaera berresku-



Azataporrua elkartearen eraldaketa da Basagunea. EKHI BELAR

>>> Ondo bidean Basagunea San Andres egunaren inguruan zabaltzeko asmoa dute Errebal Plazan

ratu. Azken puntu horri dagokionez, zera dio Evak: “Merkatu plaza nolabaiteko impasse batean dago eta baserriarren eskaintzari zerbait gehitzea nahiko genuke, merkatuari bizitza gehiago emanez”.

Aizpeak agroekologian jartzen du arreta: “Ingurumena eta gure osasuna zaintzeaz gain, hau osatzen dugun guztion duintasuna zaintzea da helburua. Iraunkortasunaren alde egin nahi dugu”.

Basagunean aurkituko diren produktuak eguneroko otarra betetze-



Hurbileko produktu ekologikoak erosi ahal izango dira Basagunean. EKHI BELAR

koak izango dira (fruta eta barazki freskoak, lekaleak, laboreak, esnekiak, ogia, arrautzak, kontserbak, edariak, zizka mizkak, okela...) eta kalitatezko produktuak izango direla bermatzen dute. “Produktu guztiak ekologikoak eta hurbilekoak dira”, diote elkartekoek. Gainera, euren berbetan, “prezioak justuak dira ekoizleentzat eta arrazoizkoak kontsumitzaileentzat”.

Orain arteko ekoizleekin jarraitzeko asmoa dute eta zabalik daude euren filosofiarekin bat egiten duten ekoizle gehiagorekin elkarlana egiteko.

Bazkidetza eta erosketa librea

Basagunea irabazi asmorik gabeko elkarte da eta bi modutan hartu daiteke parte bertan. Batetik, bazkide egiteko aukera dago. 30 euroko hastapen aportazioa egingo da bazkidetza formalizatzeke eta, gero, 10 euro ordaindu beharko dira hilero. Horren bitartez, elkartean zuzenean

>>> Zuzeneko erosketaz gain, enkarguz ere egin ahal izango da, eta hainbat ekintza garatzea espero dute

parte hartzeko aukera izateaz gain, %10eko deskontua eta lehentasuna egingo da hainbat produktu eta ekintzatan.

Beste alde batetik, egitasmoa herritar guztiei irekita dagoenez, Errebaleko postuan erosketa librea eskainiko dute. Beraz, dendara hurbildu eta beharrezko produktuak erostea besterik ez dago. Gainera, erosketak enkarguz ere egin ahal izango dira. “Ahalik eta galera gu-

txien sortu nahi da. Aurretik baldin badakigu zer kontsumituko den, galera gutxiago egingo da eta produktuen prezioa ere gure poltsikoetara moldatuko dugu”, diosku Aizpeak.

Denda astelehenetan 17:00etatik 20:00etara, martitzenetan 10:00etatik 13:30era, eguenetan 17:00etatik 20:00etara, barixakuetan 10:00etatik 13:30era eta zapatuetan 10:00etatik 13:30era egingo da zabalik.

Basagunearen inguruan informazio gehiago jasotzeko Instagram kontua ireki dute (@basagunea) eta bihar Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren Azokan egingo dira Untzagan proiektuaren berri ematen.

San Andres egunaren inguruan zabalduko dute Errebal Plazako gunea (“ezin egun aproposagoa proiektua martxan jartzeko”, esan digu bikoteak) eta ateak parez pare lagako diote zabalik herritar orori.



Astelehenetik zapatuta egoten dira baserritarrak Errebalako merkatu plazan. EKHIBELAR

Merkatu plazako baserritarrak bizilagun berrien zain

Hainbat urtez Rialton egon ondoren, herriko baserritarrek Errebal Plazan aurkitu dute etxe berria. Esan daiteke jatorria itzuli direla, Errebalen zegoen merkatu plaza laga behar izan zutelako Rialtora joateko. Gorabeherekin, ekoizle gehienek postuari eutsi diote eta, baserrietan errelebo falta dagoela aipatzen duten arren, bertan jarraituko dutela diote.

Eguaztenean egon gara bertan eta Barrundi baserriko Maria Jose Unzetabarrenetxeak euren egoeraren berri eman digu. Badabil jendea, baina esan digunez ez da izaten asteke egunik biziena. “Astelehenetan jende gutxi etortzen da eta saltzen ere gutxi egoten gara. Martitzeneztan gehiago mugitzen da, eguaztenean eta eguenetan are gehiago, eta barixakuak eta zapatuak izaten dira egunik fuerteenak”, bere berbetan.

Sasoian sasoiak eskaintzen dute bertan, “etxean duguna”, Maria Jo-

sek dioenez. “Piperren eta tomateen sasoiak amaitzera doa, baina orain porruaren, txikoriaren, borrajaren, intxaurren eta eskarolaren sasoiak hasiko da”. Erosleek asko baloratzen dute bertan eskaintzen dena eta erosle finkoak dituzte, astero-astero joaten direnak.

Baserritarrak dio sasoi batzuk beste batzuk baino hobek izaten direla. “Gabonetatik apirilera arte nahiko geldi egoten gara. Orduan hasten dira babatsak, ilarrak... eta orduan hasten da mugimendua”,

azaldu digu Maria Josek. “Orain letxuga daukat giro ona dagoelako egiten, baina neguan ez dugu irabazten, ez dugulako negutegirik. Udaberrian gauzak etortzen dira poliki-poliki eta mugimendu gehiago ikusten da”.

Maria Josek ez daki klima-aldaketarengatik den edo ez, baina aldaketa batzuk igarri ditu. “Udazkenean beti egin ditu haizeteak, baina egia da ez duela lehen beste hotz egiten, ez duela elurrik egiten, eta ortuan zomorro gehiago dagoela dirudi. Lurra ere ezberdin ikusten dut. Agian guk geuk lurra lehen bezala zaintzen ez dugulako da hori”, bere iritziz.

Udan fresko, neguan epel

Bera eta bere mahai-lerroan egoten diren baserritarrak “burugorrrak” direla dio Maria Josek. “Egunero etortzen gara, urte guztian. Rialton egon ginenean ere horrela izaten zen”, azaldu digu. “Batzuetan beste saltzaile batzuk ere etortzen dira, tomate saltzailea adibidez, baina gutxiago”.

Baserritarrek bi urte daramatzate Errebal Plazan eta, Maria Josek esan digunez, bertan ondo daude. “Bista ederrak ditugu, argitsua da, polita, berria... baina Rialton egon ginenean aguantatu egin behar zen eta han egon ginen”, diosku. “Gainera, udan fresko egoten gara eta neguan epel”.

Basagunea izango da bizilagun berria San Andres egunetik aurrera eta Maria Josek begi onez ikusten du euren etorrera. “Urteekin ikasten duzu zenbat eta jende gehiago egon, hobe izaten dela”, bere iritziz. Berretzat horren adibide da gaur egun eguenetan gertatzen dena: “Sosola-koak eguenetan etortzen dira ogia saltzera eta, jendea ogitara etortzen denez, beste zerbait gehiago erosten aमितzen du”.



Al Fitrah topagunea zabaldu dute Urkizun



Urkizuko dorreetan, zentro medikoa zegoen tokian, Al Fitrah topagunea inauguratu zuten joan den barixakuan. Erakundeen eta hainbat elkarteren eta herritarren babesa jaso zuten bertan, eta herritarren elkarbizitza hobetzeko eta Eibarko komunitate islamikoaren beharrak asetzeko lan egingo dutela adierazi digute.

Azken hamarkadetan hazi egin da Eibarko komunitate islamikoa eta behar berriak sortu dira herria osatzen duten biztanleen artean. Hainbat programa eta ekintza abiatu dira behar horiek asetu asmoz, eta Al Fitrah topagune berriak erantzunak eman nahi dizkie horietako batzuei.

Aziz Messaoudi gizarte hezitzailea da Al Fitrah topaguneko ardura-dunetako bat eta elkartearen berri eman digu. Hasteko, oso pozik agertu da barixakuko inaugurazioagatik. “Guretzat arrakastatsua izan zen. Bai antolakuntza aldetik, bai bertan parte-hartu zutenengatik. Alkatea, zinegotziak, immigrazio teknikaria, udaltzain-burua eta Ertzaintzaren ordezkaria etorri ziren eta, horrez gain, baita auzoko elkarteetako ordezkariak ere”, esan digu telefonoaren beste aldetik.

Inaugurazioan elkartearen eta helburuen berri eman zuten. “Al Fitrah proiektu soziokulturala da eta gure aletxoak jarri nahi dugu Eibarren”, diosku. “Arazoak konpontzen eta ahal dugun guztian laguntzen saiatuko gara. Besteak beste, bizilagunen arteko elkarbizitzaren alde lan egitea eta kolektiboen arteko gatazkak saihestea nahi dugu. Hori da garrantzitsua”.

Zentzu horretan, gauza bat laga nahi dute oso argi: “Badaude arlo honetan lan egiten duten elkarteak eta mezkita, eta ez dugu nahi eurek pentsatzea konpetentzia egitera gatozenik. Lagundu eta bete ezin izan diren hutsuneak bete nahi ditugu, beste barik”, argitzen du Messaoudik. “Eta bestetik, bizilagunei argi eta garbi esan nahi diegu topagunea ez dela mezkita bat izango”.

Orri zuria

Al Fitrah da topagunearen izena eta horrek badu arrazoi bat. “Esanahi asko ditu. Al Fitrah izena aukeratu dugu erlijioarekin eta gure asmoekin zerikusia duelako. Fitrah izena itzultzailean jarriz gero, ‘instintua’ edo ‘gizatasuna’ bezalako hitzak agertuko dira. Berba horri arlo erlijiosotik helduz gero, ostera, jainkoarenganako inklinazioa esan nahi du. Pertsona guztiak natural-natural jaiotzen gara, eta denborarekin trebetasunak eta jokabideak ikasten ditugu. Fitrah orri zuria da eta bertan idazten da guztia”, azaldu digu Messaoudik.

Izenak iradokitzen duen bezala, Urkizun ere orri zuria laga dute herritarrek bertan idatzi dezaten. “Umeak jaiotzen direnean instintuak dituzte eta helduek gauzak irakasten dizkiete. Gu geu ere hasi gara herrian lagundu ahal digutenekin bilerak egiten eta eurengandik ikasten dugu zer egin eta nola lagundu dezakegun jakiteko”.

Entzun eta eman

Ateak berriki zabaldu dituzten arren, Al Fitrah komunitatekoek lanerako zenbait lerro identifikatu dituzte eta martxan dabilta dagoeneko. Elkarteekin eta bizilagunekin egindako bileretan hainbat behar identifikatu dituzte eta Messaoudik honakoak azpimarratzen ditu: “14-22 urtekoen artean dagoen eskola-porrota, bizikidetzara-azaroak, arazo familiarrak... dira komunitate musulmanak dituen ardurak nagusienak eta horien inguruan lan asko egin daiteke”.

Arazo horiei erantzuna emateko ekintzen artean daude arabieraren irakaskuntza, orientazio soziolaborala eta hezkuntza-orientazioa (BHI eta Batxilergoko ikasleentzat batez ere). “Askok ez dakite hemengo eskola-plana zein den ere. Uste dute BHI egin ondoren Erdi Mailako Heziketa Zikloa egin behar dela eta kitto, hor amaitzen dela mundua. Batzuek ezta hori ere, lehenago amaitzen dituztelako ikasketak. Lanean hasten dira, baina, lanik ez badago, arazoak sortzen dira. Beraz, familiei euren seme-alabak unibertsitatera joan daitezkeela eta tituluak izan dezaketela erakutsi nahi diegu, esperantza hori eman, horren bitartez gizartean presente egon daitezten”, diosku Messaoudik.

Ongi etorri auzora!



"Bizilagunen arteko elkarbizitzaren alde lan egitea eta kolektiboaren arteko gatazkak saihestea nahi dugu"



Joan den asteko barixakuan inauguratu zuten Al Fitrah-ren lokala Urkizu pasealekuan. AL FITRAH



MARIA ALONSO

Millenials

Azken urteotan, dena sailkatu eta etiketatzeko behar hori asetu nahian, jendartean bizi garenon artean sailkapena egiteko joera dugu, eta, azken aldian, generazioka egin dugu etiketatze hori. Jakin ezazu, iritzi artikulua hau irakurtzen ari bazara, “Babyboomer” “X Generazioa”, “Millenial” edo “Z Generazioa” zarela. 2013tik aurrera jaiotako haurra baduzu, berak ere etiketa bat dauka, eta “Alpha Generazio”koa izango da.

Baina, zerk ezberdintzen gaitu bakoitzari?

Baby boomer bazara, esperientzia eta lidergoa dituzu oinarri eta balio gisa lan munduari begira. Generación Z ren kasuan, edozein egoerara egokitzeko gaitasuna. Milleniala bazara (nire kasuan bezala) berrikuntzak eta burubelarrari gure nahiak betetzeko gaitasunak ezberdintzen gaitu, eta 1996tik aurrera jaio bazara, “Generación Z” zara, eta zure indarguneen artean jasangarritasuna eta garapen digitala daude.

Argi dago jaio garen urtearen arabera modu batekoak edo bestekoak izango garela. Azken finean testuinguru historiko ezberdinak bizi ditugu, eta gure bizipenek gure nortasuna markatzen dute. Baina beharrezkoa da hainbeste etiketa?

Ni, 40 urte beteta dituen gaztea, Millenial-a naiz, baina etiketa horrek sailkatzen dituen ezaugarri guztiak betetzen ditut?

Ikerketen arabera, Millenials-en kasuan eta balioei dagokienez, inklusiboagoak eta kontzienteagoak gara gizartean, eta iraunkortasuna, berdintasuna eta justizia soziala bezalako gaiekiko interes handia erakusten dugu. Ezagunak gara lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka bilatzen dugulako, ondasun materialen gaineko esperientziak lehenetsiz. Horrek lanarekin erlazionatzeko modua aldatzea ekarri du, malgutasuna eta helburu esanguratsua eskaintzen duten enpleguak hobetsiz.

Nire burua balore horiekin identifikatzen dut, noski, baina... hor kanpoan zaudeten babyboomer, X eta Z generazioen parte zareten horiek, ez ahal duzue zuen burua ere horrekin identifikatzen?

“Argi dago jaio garen urtearen arabera modu batekoak edo bestekoak izango garela. Baina beharrezkoa da hainbeste etiketa?”

Gazteen neurrira antolatutako dantza masterclassa eta kontzertuak

Gipuzkoan Gazte Tour 2024 ekimenaren udazkeneko programazioa aurkeztu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Gazteria Sailak eta Eibarko Udalak. Probintziako hainbat herrirekin elkarlanean egingo den jardueraren eskutik, urriaren 26an Leire Dallas, Noan, Udaz eta Ayvee etorriko zaizkigu Eibarrera. Goizez dantza masterclass-a egingo da Ipurua kiroldegian, eta kontzertuak arratsaldez izango dira, Coliseon.

Gipuzkoan Gazte Tourrek gure herrirako prestatu duen programazioaren aurkezpena aste honetan egin dute Isaac Palencia Aldundiko Gazteriako zuzendariak, Jon Iraola Eibarko alkateak eta Andoni Zabala Kultura eta Gazteriako zinegotziak. Zumarragan bezala, Eibarren ere dantza masterclass-a eskainiko da 14-18 urte bitartekoentzat, dohainik, Leire Dallasen eskutik. Bestek beste *Operación Triunfo* saioan dantzan aritutako artistak Ipurua kiroldegian emango du klasea, 11:30ean hasita. Parte hartu nahi dutenek aurretik izena eman beharko dute, Eibarko Udalaren webgunearen bitartez (plaza libre batzuk geratzen dira oraindik). Eta arratsaldean, berriz, musika-programazioari ekingo zaio. Kontzertuak Coliseo antzokian egingo dira, 19:00etatik aurrera, eta kartelburua Noan, “nazio mailako artistarik garrantzitsuenetariko bat” izango da. Zarautzen jaio eta Asturiasen bizi den abeslari eta konpositoreak hainbat musika-tresna jotzen ditu. Adituen arabera, pop-musikaren olatu berriaren promesa handienetako bat da estatu mailan. Arrakasta handia izan duten *Me mata* edo *Superpoder* bezalako kantuei esker, Espainiako Spotify playlist-aren *50 biralenak* izeneko zerrendan sartzea lortu zuen.

Udaz eibartarra artista Km0 gonbidatu gisa

Berarekin batera aritzeko gonbidatu duten artista, berriz, Udazken Salaberria 17 urteko neska eibartarra da. Azaldu dutenez, “bost urte zituenetik, beti egon da



Dantza masterclass-a dohainik izango da, baina parte hartzeko Udalaren webgunean dagoen formularioa bete behar da.

musikarekin kontaktuan, eta bere sormen-lanengatik da ezaguna”. Izan ere, amamak eta aitak jotzen zituzten musika-tresnez inguratuta hazi zen, eta sei urterekin hasi zen solfeo-klaseak hartzen. Handik urtebetera, gitarra espainiarra jotzen ikasten hasi zen. Solfeo-ikasketak amaitu ondoren, 2022an bere kantak konposatzen eta sortzen hasi zen. Bere lehen kanta, *Don't let me go* izeneko, 2024ko urtarrilaren 4an kaleratu zuen. Kantu hori 14 urte zituenean idatzi zuen, eta horrekin aurkeztu zen Gaztea Maketa Lehiaketara, beste izen bat erabilita. Gerora, *Udaz* izen artistikoa hartu zuen, eta gaur egun abestiak konposatzen eta sortzen jarraitzen du.

Aurkezlea, bestalde, Ayvee (Andrea Vitoria) izango da. 2020ko irailean kaleratu zuen *Amaitu da* izeneko bere lehen kantarekin oihartzun handia lortu zuen, baina pandemia eta gero musika egiten jarraitzea eragotzi zion ezbeharrak gertatu zitzaion. Hala ere, prozesu luze baten ondoren, berriro hasi da musikagintzan, eta berari gertatu zitzaiona salatu eta azaltzen duen bigarren diskoa kaleratu du. Kontzertuetarako sarrerak 5 euro balio du eta aurretik erosi daiteke.



BAZKIDE zertarako?

Kale giroa euskalduntzeko



Euskeraz Primeran!

Tabernako barraren edo dendako mostradorearen alde batean zein bestean daudenek euskara erabiltzeko aukera izatea da ekimen honen helburua. Euskara-maila edozein izanda ere, hasierako hitza behintzat euskaraz eginda, euskarari atea zabaltzen diogu. Hainbat euskarri eta bestelako laguntza banatzen ditugu izena emanda duten establezimenduetan: hiztegiak, posterrak, mahai oihalak... eta Itzulpen-zerbitzua ere eskaintzen diegu, doan.

zarelako **g**ara

Egin zaitez bazkide!

Aldaketa asko izan dituen Urbatek “etxeko” lehen partidua du bihar

Aurreko asteburuan hasi zuen Nazional 2. Mailan jokatzeko duen Urbateko talde nagusiak bere bigarren denboraldia maila horretan. Aurkari zaila zuen aurrean eta Ciutat de Palmarekin 17-10 galdu zuen Mallorcan, lehen zati eta erdira arte ondo eutsi arren aurkariaren pressing-a. Bihar Donostiako Paco Yoldi igerilekuan, ia zetik etxeko partidua jokatzeko dituen unean, Malaga talde indartsua hartuko du 20:15ean.

Davide Cerchik zuzentzen duen taldeak, dena dela, aldaketa asko izan ditu denboraldi honetan, batez ere bai jagoak. Jon Treviño Erasmusen dago Ingalaterran eta baja izango da hilabeteetarako, Mikel Recio udan izandako lesio larriak ere luze joko du eta Asier Ortiz de Zarate sorbaldan izandako operazioz errekuperatze bidean da.



Aurreko denboraldiaren amaieran liga kompetizioa agurtu zuen taldea.

Hori dela eta, taldeak Igor Moreno Askartzako aurrelaria eta Xabat Karrera Irungo Urgara Txingudiko atezaina fitxatu ditu. Eta senior mailako bigarren taldetik eta jube-

niletatik Eneko Zugazaga, Eukene Kortabarria, Xabier Varela eta Izei Sologaistua igo dituzte. Azken hori, gainera, aurrelari gisa, urteetan atezain izan eta gero.



Gipuzkoako 25 xakelari txapel bila

Aurreko zapatuan Errebal plaza-ko geletan hasi zen Gipuzkoako Txapelketaren lehen jardunaldia, “borrokatua izatea” espero den lehiaketa abiatuz. Hiru mailatan banatutako txapelketa da eta eibartarrak ez dira falta bertan. Lehenengo mailakoei dagokionez, Jon Aranak Miguel Gomezi irabazi zion eta Diego Olmok berdindu egin

zuen Mikel Benaitorekin. Bigarren mailakoan zortzi jokalaritako dira eta, eibartarren arteko derbian, Aitor Beorlegik Alex Aranzabal garaitu zuen, Jose Antonio Garridok Asier Lasari irabazten zion bitartean. Azkenik, hirugarren mailari dagokionez, parte hartzen duten gehienak eibartarrak dira, tartean xake eskolako ikasleak.

Mek Eskubaloiko taldeak bikain azken partiduetan

Mek Eibar Eskubaloiko bi talde nagusiek jardunaldi bikaina izan zuten aurreko asteburuan: Zilarrezko Mailan jokatzeko duen emakumezkoenak 20na berdindu baitzuten ustez askoz indartsuago den Ermuko Lauko Errotabarrirekin Ipuruan jokatu zuten derbian; eta 1. Nazional Mailan jokatzeko duen gizonzkoenak 23-30 nagusitu zen Errenterian Ereintzaren aurka. Asteburu honetan emakumezkoen taldeak Loizagari egingo dio bisita eta gizonzkoenak, bestalde, Ipuruan Egia hartuko du bihar 18:30etik aurrera. Ea jokoan izango diren lau puntuez jabetzeko gai diren.



Casinoko billaristek Santanderren jokatuko dute bihar

Casino Artista Eibarreseko taldeak hiru bandetara jokatzeko den biltzarreko 2. Maila Nazionalako jardunaldi berri bati egingo dio aurre zapatu honetan. Txapelketako bigarren jardunaldian Eibarko laukotea Santanderrera joango da, bertako Club de Regatas taldeari aurre egiteko. Aurkaria C multzoko liderra da une honetan, igotzeko ere hautagaietako bat 1. Mailatik jaitsi berria izanda. Alcobendasen berdindu ondoren, Casinoko laukotean bi aldaketa izango dira lehen jardunaldiarekin alderatuz: Jorgek eta Ricardok errepikatuko duten bezala, Luisen eta Imanolen debut izango da.



Ibon Artolazabalek Alex bere aitarekin hartu izan du parte aurreko bi denboraldietan.

Ibon Artolazabal eibartarra garaile Los Arcoseko Racer Kopako proban

Eibarko piloatoak garaipena lortu zuen Racer Kopako sprint 1 modalitateko lasterketan. Automobilismo lehiaketa horretako lau probetatik azkenaurkekoa zen Nafarroako zirkuituan jokatuakoa eta eibartarrak segundotik gorako aldea atera zion Bejarano Motorsport Antonio Aristi taldekideari. Parte-hartze handia izan zuen probak eta horrek istripu zerbakieta ere izan zuen islada; hala ere, Ibon Artolak ondo jakin zuen egoerara egokitzen eta hirugarren garaipena eskuratu zuen.

Aurretik, Estorilen izandako lasterketan, Artola eta Manuel Bejarano taldekidea nagusi izan ziren sprint lasterketa bietan eta baita proba nagusian ere. Une honetan Bejarano Motorsport taldeko piloatoak laugarren dira Racer Kopako sailkapen orokorrean. Lehiaketa horri eutsi aurretik, Ibon Artolazabalek Alex aitarekin hartu zuen parte bi denboralditan Mini Cooper auto batekin turismo modalitatean. Denboraldi honetan jauzia eman du maila handi batera, indar eta abiadura gehiagoko BMWarekin.



Morurako igoyerarekin, eguneko gogorrena izanda ere, gozatu zuten parte-hartzaileek.

Udazkentrailean izan zirenek dagoeneko Gabontrailean hasi dira pentsatzen

Aurreko domekan Udazkentrailean parte hartu zuten mendi-korrikalariak eguraldi ezinhobea izan zuten lagun 15 kilometro eta erdiko ibilbidean. 550 metroko iguera gainditu zuten Deportiboko egoitzatik abiatu eta oraingoan Elgoibarko lurretaraino joan ziren korrikalariak. Azitaindik Elgoibarko Sigma auzorantz jo zuten, Saturixo ibaia pasatu eta Sigma atzean lagata, San Pedrorako bidetara eusteko. Ibilbideko zatirik gogorrena Moru tonto-

rreraino zihoana bazen ere, gozatu ederra hartu zuten bertan, "mendi-korrikalari gehienentzat ezezaguna zen ibilbidearen zatia izanik". Morun taldeko argazkia atera eta, jaisterakoan San Pedron atsedenditoxa hartu ondoren, Eibarrera itzuli ziren ohiko bidetik. Korrika egiteko eta mendiaz gozatzeko ibilbide aproposa bi ordu eta erditan amaitu zuten. Hurrengo irteera Gabontraila izango da, abenduaren 24an urterokoari jarraituta.



Astelenak atek zabalduko dizkio etzi profesionalen denboraldiari

Domekan pilota profesionalen denboraldia hasiko da Katedralean, lau eta erdiaren barruko txapelketako bi norgehiagoka tartean direla. Kaiolaren barruko buruzburuko 1. mailako txapelketakoa izango da jaialdiko partidu nagusia, bigarren tokian jokatu dena. Bertan Baiko enpresako Iñaki Artolak eta Aspeko Jokin Altuna

gaur egungo txapelkunak neurtuko dituzte indarrak. Aurretik, jaialdiarekin hasteko, lau eta erdiaren barruko ere, baina promozio mailako txapelketakoa, jokatu da, Larrazabal eta Muruaren artekoa. Jaialdiarekin amaitzeko honako bikoteen artekoa antolatu dute: Salaberria-Erostarbe vs De la Fuente-Gabirondo.



Untzagak atletismo erakustaldia hartu zuen zapatu eguerdian

Klub Deportiboaren 100. urteurrenaren barruko ekitaldien artean, aurreko zapatuan Untzaga plazak atletismoko hainbat proba hartu zituen. Eguerdi aldean hasita hiru orduko iraupena izan zuen ekitaldian lau modalitateko lehiaketek gozatu ahal izan zuten ikusleek:

luzera eta altuera jauziak eta baita lasterketak ere, hesiekin eta gabe. Kepa Marquez, Imanol Egidazu eta Elene Arrazola klubeko atletek hartu zuten parte euskal mailako beste ordezkariekin batera, eta epaile lanetan jardun zuten Inma Urkiola, Iñigo Egidazu eta Igor Amorrostat.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Deportivo (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Mirandes - EIBAR (bihar, 21:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

UD Logroñes - EIBAR B (etzi, 18:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Rayo Vallecano - EIBAR B (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Alaves C (bihar, 12:45)

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Bizkeneskak (etzi, 18:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Ordizia (bihar, 18:00)

Idiazabal - EIBARTARRAK (bihar, 13:00)

Erregionaleko 1. Maila

URKI B - Aretxabaleta (etzi, 15:30)

Jubeniletako Ohorezko Maila

Aurrera Vitoria - EIBAR (etzi, 12:00)

FUTBOL-ZALETUA

• Xania - Limpieza Rueda (bihar, 09:00)

• Baserri - Bar Marem (bihar, 10:30)

• Adahi Etxegi - Kalaka B. Aires (etzi, 09:00)

• BOJ - Malape Taberna (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Altza - EIBARTARRAK (etzi, 09:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Loizaga - MEK EIBAR (bihar, 18:45)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Egia (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Zarautz (bihar, 16:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Aritzatalde - MEK EIBAR B (bihar, 15:30)

ERRUGBIA

Gizonezkoen Euskadiko Liga

EIBAR - Betsaide Elorrio (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Antigua - ARTES. JUANTXO (bihar, 20:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Mundarro - EIBAR B (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Nazional Maila

URBAT - Malaga (bihar, 20:15)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

URBAT B - Leioa WP (etzi, 14:30)

PILOTA

Jaialdia Astelenan (etzi, 17:00)

Larrazabal vs Murua / Altuna III vs Artola
Salaberria-Erostarbe vs Fuente-Gabirondo

“Bere momentuan, liburua sortzea zen garrantzitsua niretzat, horrek asetu ninduen”

ASIER SERRANO • Idazlea



Asier Serranok ‘Euri gorriaren azpian’ eleberria argitaratu du. Boterearen inguruan hausnartzen du idazle eibartarrak eta, horretarako, 25 urte ondoren bere jaioterrira itzultzen den emakume baten bidaia jasotzen du. Liburuak izan duen bidaia ere ez da nolana hikoia izan, norberarentzat idatzitakoak argia ikusi baitu zenbait arrazoiren ondorioz.

Bere literatura ‘Euri gorriaren azpian’ liburuan biltzen dela dio Serranok eta lan horrekin bere literaturarekin zituen zor guztiak kitatu dituela. Gainera, irakurleak paper aktiboa du, idazleak jolas bat proposatzen diolako.

Liburuarekin irakurleari jolas bat proposatzen diozu, baina nola?

Liburuaren hasieran jolas hau proposatzen zaio irakurleari: paperezko zerura begiratzea eta identifikatzea laino baten irudia zein izan daitekeen. Liburu guztiak nolabaiteko lokarri bat eduki behar izaten dute, hau da, nolabaiteko misterioa edo iruditeria. Sormenaren inguruan idatzitako liburua da. Jolasari dagokionez, irakurleari pistak ematen dizkiot narratzaile orojakilea zein den asmatzeko, eta hori da liburuaren gakoa. Beste liburu batzuetan hiltzailea aurkitu behar da, adibidez. Bestetik, liburuan boterearen inguruan, eta botereak sortzen dituen komunikazio arazoez egiten dut berba. Hau da, zapaltzailea zein den, zapaldua nor den, eta nola zapalduak zapaltzaileari aurre egin ahal dion sormena erabiliz, literatura erabiliz.

Horretarako fikziozko istorio bat kontatzen duzu. Nolako istorioa da?

Istorio distopikoa da. XX. mendean, munduko edozein herrialdetan kokatu daiteke, ez dudalako ezagutzen diktadurarik gabeko herrialderik. Beraz, istorio unibertsal bat kontatzen da. Diktadore batek estatu kolpea ematen du eta, 25 urte eta gero, bi protagonista nagusiak elkartu egiten dira. Diktadurak zazpi urte iraun ditu, beste 18 urte pasa ditu fikziozko herrialde horrek nolabaiteko demokrazian, eta emakume bat estatu kolpea eman zen hirira itzultzen da beste pertsonaia nagusiari egindako promesa betetzera.

Urteak pasa dira istorio hau idazteko ideia sortu zenetik eta kajoitik argitara irten da. Nolako bidea egin du gaur egunera arte?

Liburu hau orain dela bost urte hasi eta amaitu nuen. Gero, batzuentzat pandemia sasoi sormenerako bidea izan zen, baina niri kontrakoa gertatu zitzaidan. Gainera, ez nion zentzu askorik aurkitzen liburu hau publikatzeari. Bere momentuan, liburua sortzea zen garrantzitsua niretzat. Hau da, idazte lan hori egitea. Horrek asetu ninduen eta ez nuen inolako asmorik publikatzeko. Ostera, pandemia sasoiaren ondoren konturatu naiz gizaratek ez duela aurrerapausorik



Asier Serranoren sormenaren iturria oso emankorra da. EREIN

egin. Lezio gutxi ikasi ditugu eta, nahiz eta lezio horiek agerian egon, uste dut gizarteak ez dituela aprobetxatu. Beraz, iruditzen zitzaidan liburu honek gaurkotasuna duela, inoiz baino gehiago, batez ere bazterreko pertsonaiak agertzen direlako. Liburuak artaldearen eta sumisioaren inguruan hitz egiten du, eta bazterreko pertsonaia horiek zein toki betetzen duten aukeratu ez duten gizarte batean. Hori da interesatzen zaidana eta horregatik argitaratu dut. Bestalde, azken urteotan argialetxeetan editore aldatetako egon dira, hoberako pentsatzen dut. Belaunaldi berriak sartu dira, begirada berriak. Eskaintza bat jaso nuen eta, zalantzekin, baina pentsatu nuen liburua kajoitik atera behar nuela, bazuelako bere funtzioa gaur egun. Orain, liburua publikatuta ikusita, harrotasun puntu bat sentitzen dut.

Zure literaturari ezer zor ez diozula aipatu izan duzu. Zergatik?

Literatura sistemak behar dituen pauso guztiak bete izan ditudala uste dut. Belaunaldi berriak etorri dira, zoragarria iruditzen zait gaur egungo literatura eskaintza, eta lan honetan errepikatu egiten naizela

uste dut. Hau da, uste dut liburu honetan orain arte idatzitako estilo, argumentazio, pertsonaia eta espazio guztiak biltzen direla. Nik ez dakit beste modu batera idazten, ez dakit dokumentaziotik idazten. Bizi dudanetik idatzi izan dut beti. Zentzu horretan asetuta nago. Noizbehinka apunteak hartzen jarraitzen dut, baina beharrezkoa den disziplina hori beste gauza bati zor diot gaur egun. Ez da ideia edo gogo falta, baina uste dut lekukoa pasatu behar dela. Agian etorkizunean berriz piztuko zait zerbait, baina ez dut aurkitzen nire estiloan idazten jarraitzeko asmorik.

Zorrak kitatu ondoren, idazteko orduan beste bide batzuk hartzeko aukerak sortu ditzakezu agian?

Gaur egun nire lana irakurtzea da, hori da nire ogibidea. Irakasleei literatura irakasten diet eta nire begirada aldatu egin da. Gaur egun literaturan dagoen maila ikusgarria dela iruditzen zait eta nire estiloa, zaharkitua baino, betegarri xamar gelditu dela uste dut. Akaso, laster 50 urte bete behar ditut eta agian beste fase bat piztuko zait, baina gaur egun ez dut nire literatura berritzeko beharrik. Orain gehiago asetzen nau irakurtzeak idazteak baino.



Usartza Txistulari Taldearen kontzertua domekan

Ikasturte berria hastearekin batera, agenda bete-betea izan dute Usartza Txistulari Taldekoek: Arrateko Amaren jaietan, Kofradia egunean, Zornotzako Txistu Egunean eta Aginagako San Miguel jaietan aritu dira, besteak beste. Eta domekan, berriz, denboraldiko lehen kontzertua emango dute txistulariek, 12:45ean Untzagan (udaletzeko arkupeetan). Era guztietako doinuak joko dituzte: aspaldikoak, herrikoiak, suitea, orripekoa, arin-arina, zortzikoa... Joko dituzten piezak hauek dira: *Galo* (orripeko; Mold. J.I. Ansorena), *Errexa* (arin-arin porrusalda; Aita Olazarán Lizarrakoa), *Ami tierra vasca* (zortziko; Manuel Turrillas), *Bilbaineskas* (Viva San Joaquin; J. Crisostomo Arriaga), *Arin* (Arm: Pedro F. de Aguirre), *Minueto* (Vicente Monzon) eta *Gasteizko nere bijotz ikarak* (J.M. Gonzalez Bastida).



Astelehenean hasiko da ipuin kontaketarako izen-ematea

Urriaren 26an itzuliko da *Zapatuko Ipuina* egitasmoa. Hilabete honetan, gainera, Asteklimarekin bat egin du Liburutegiak; horrela, *Bazen behin oihana zikin bat* ipuin-kontakizuna eskainiko du Ane Gebarak, 18:00etan Portalean. Izen-ematea astelehenean zabalduko dute, Udalaren webgunean.



Bertso-paper lehiaketarako epea hilaren 30ean itxiko da

Egun horretarainoko epea izango da aurtengo San Andres bertso-paper lehiaketara lanak aurkezteko. Maila bi ditu lehiaketak: 16 urtetik beherako Eibarko ikasleena bata, eta Euskal Herriko 16 urtetik gorakoena bestea. Gazteenek bertso bat edo bi kopia aurkeztuko dituzte eta helduek, berriz, lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Gaia eta doinuak libreak izango dira, eta lanen hiru kopia entregatu edo bidaliko dira ...eta kitto!-ra (Urkizu, 11 solairuartea). Sarietarako dagokienez, gazteenek trofeoak eta liburuak eskuratuko dituzte; helduen artean, berriz, 300 euro jasoko ditu irabazleak eta 250 euro bigarrenak. Irabazleek azaroaren 22an Coliseo antzokian egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak.



Eibartar bat Velazquezen “Las Meninas” koadroan

Kaleratu berri den Eibar Rebistaren 166. zenbakian, Jose Francisco Gutierrez Lazpitak azaltzen du *Las Meninas* koadroan lehen erroan, ezkerrean, Margarita infantearen ondoan dagoena, Maria Agustina Sarmiento e Isasi eibartarra dugula. Diego Sarmiento eta Maria Juana de Isasiren alaba izan zen bera, 1637an jaioa, eta 19 urte zituen pintoreak margotu zuenean.



“Amagandiko edoskitzea” argazki-erakusketa eta horri buruzko hitzaldia Topalekuan

Gaur zabalduko dute *Amagandiko edoskitzea* argazki-erakusketa Topalekuan, eta horrekin batera *Mitos de la lactancia* izenburuko hitzaldia emango dute Eneritz Lizarralde pediatriak eta Laura Mateos emaginak, 18:00etan. Erakusketa domekara arte egongo da ikusgai, 11:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Eibarko "Erro garaituak" argazki-erakusketa

Erakusketa eta hitzaldiarekin batera, Arrate Kultur Elkarteak beste jarduera batzuk antolatu ditu urrirako. Gogora ekarri dutenez, San Andres jaien inguruan egiten den XX. Pintxo Lehiaketan parte hartu nahi dutenek domekara arteko epea daukate izena emateko. Horretarako, datu guztiak (argazkia barne) arratekultu@gmail.com helbidera edo 638284912 zenbakira, WhatsApp bitartez bidali beharko dira, etzirako gehien jota. Lehiaketa azaroaren 6an eta 7an jokatu da, izena ematen duten tabernetan. Beti bezala, epai-mahaiak emango dituen sariez gain, bezeroek boto bidez erabakiko dutena ere banatuko dute.

Eta, eguaztenean, Ibon Rokandioren "Erro garaituak" izeneko argazki erakusketa zabalduko dute. Azaroaren 3ra arte egongo da ikustera joateko aukera, 19:00etatik 21:00etara asteleheneretik barixakura bitartean, eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara asteburuetan. Urriko programazioarekin amaitzeko, euskal kantuak ikasi nahi dituztenentzat saio irekia egingo da urriaren 28an, 19:00etan elkar-tearen lokaletan.



Bertsolari Txapelketako lehen final-laurdena Coliseon

Eibarren hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren bigarren fasea, bihar 17:00etan, Coliseo antzokian. Biharko final-laurdenean arituko diren bertsolariak hauek dira: Agin Laburu Rezola, Alaia Martin Etxebeste, Aratz Igartzabal Bidegain, Eneko Araiztegi Agirre, Haizea Arana Cardenal eta Manu Goiogana Bengoetxea. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Iban Narbaiza Cevidanek ariko da. Sarrerak 14 euro balio du (12 euro Bertsozale Elkartearen bazkideentzat eta 10 euro 6-18 urte bitartekoentzat) eta bertsosarrerak.eus atarian erosi daitezke, baita Coliseoko leihatilan ere.

52 film labur emango dituzte Asier Errasti Jaialdian



Azaroaren 4tik 8ra egingo den Asier Errasti Film Laburren Jaialdian ikusi ahalko diren lanak eman dituzte ezagutzera Plano Corto elkartetik. Guztira 52 film labur emango dituzte asteleheneretik barixakura, 20:00etan, Coliseo antzokian. Bestetik, zapatuan, azaroaren 9an, sari banaketa egingo da, 19:30ean, toki berean. Sarrera doakoa izango da.

Sanandresak iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute Kulturatik

Udaleko Kultura Batzordeak San Andres jaietarako kartel-lehiaketa deitu du. Lanak urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke, eta izen-ematea elektronikoki (www.eibar.eus webgunearen bitartez) zein presentzialki (Pegoran) egin daitezke. Lehiaketaren xehetasun guztiak Udalaren webgunean kontsultatu daitezke.

Magiaz gozatu zuten Ituiño magoaren ikastaroan

Haur zein heldu, gustora eta magiaz jantziago irten ziren martitzenean Imanol Ituiñoren magia-ikastarotik. Gure Zirkuko magoak hainbat trikimailu egiten irakatsi zien kartak, gomak, edalontziak eta beste hainbat gauza erabiliz. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu zuen ikastaroa Illunabarrian programaren barruan.

Berbetaneko familiak Peru Harrira

Iñaki Perurena aizkolari handiak Leitzan duen museoa bisitatu dute bihar Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familiek. Goizean autobusa hartuta abiatuko dira Peru Harri museora. Ordu biko bisitaren ostean itzuliko dira Eibarrera. Hauxe izango da ikasturteko lehenengo irteera.



Ardoari buruzko ikastaroa antolatuko du ...eta kitto!-k hilaren amaieran

Azpea upategiko Gorka Perez izango dugu ...eta kitto!-n ardoari buruzko ikastaroa gidatzen. Hainbat ardo ekarriko dizkigu Eibarrera Nafarroako upategiko adituak. Ikastaroa urriaren 30ean, eguaztena, izango da arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Izen-ematea gaur bertan zabaldu da. Horretarako, telefonoz deitu daiteke 943200918 telefonora, mezua bidali elkarte@etakitto.eus helbidera edo www.etakitto.eus webgunean ere eman daiteke izena. ...eta kitto!-ko bazkideek 4 euro ordainduko dute, gainerakoek 5 euro.



Barixakuak Jolasian Torrekuan egingo da gaur arratsalde

Torrekuako parkeak hartuko ditu gaur 17:00etatik 18:00etara Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak antolatuko ditu ...eta kitto!-k doan. Urriko txanda Urkizun amaituko da, bertan izango baita Barixakuak Jolasian ekimena hurrengo barixakuan, urriak 25.



Agustin Olabarria Aramburu

2024/10/09

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
familiako guztioi.



- BERE FAMILIA -



M^a Teresa Unzueta Otxotorena "Maite"

1. URTEURRENA
2023/10/22

"Adio labor bat
besterik ez da.
Gero arte,
amatxo/amama
maitea"




Ignacio Zamacola Zubia

3. URTEURRENA
2021/10/23

"Gure bihotzetan
beti maite
izango zaitugu"



- ETXEKOAK -

MARITXU Gantxegi 2019/01/12
TERE Gantxegi 2020/10/15



BETIRAKO
GURE
BIHOTZETAN
- ETXEKOAK -



Agustin Olabarria Aramburu (Otolak)
Ezabaren hil zari, 2024ko urriaren 9an 75 urte zituela


"Harro hadi Kantauri itxasca
ta heien betiko loa
betiko kanta zak,
Geroari esalok olatuetan
Herri-izarrak ez direla itzaltzen,
gure haurrek biharko ikastolatik
heien izenak abestu ditzaten
..."





AURKITU 10 DESBERDINTASUNAK

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6		4	7				
				6			
	2	9		8			3
3			1				2
2		6				8	4
	9				3		6
1			5		3	7	
			1				
				8	9		2

6	1	8	2	9	5	3	7
1	3	2	4	6	7	8	9
8	2	9	6	1	3	4	5
3	4	5	7	8	9	1	2
2	9	1	3	4	5	6	7
7	8	9	1	2	3	4	5
4	5	6	7	8	9	1	2
5	6	7	8	9	1	2	3

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		2		9			
		6					2
		5	6	1	9	8	
				8		6	
6	9				7	3	
	1		6				
7	2		3	5	1		
9					8		
		7		5			

**S
U
D
O
K
U**

6	1	8	2	9	5	3	7
1	3	2	4	6	7	8	9
8	2	9	6	1	3	4	5
3	4	5	7	8	9	1	2
2	9	1	3	4	5	6	7
7	8	9	1	2	3	4	5
4	5	6	7	8	9	1	2
5	6	7	8	9	1	2	3

soluzioa

Urriak 18/24

BARIXAKUA 18

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Torrekuako parkea.



HITZALDIA

18:00 "Mitos de la lactancia", Eneritz Lizarralde pediatraren eta Laura Mateos emaginaren eskutik. Topaleku.

HITZALDIA

18:00 "Hauteskunde sistemak", Miguel Arroitauregiren eskutik. Ipuruako Merkatu Plaza.

ZAPATUA 19

ULISESEN JOKOAK

08:00/20:30 Mahai-jokoen III. Jardunaldiak, Odisea elkartearen eskutik. Errebal Plaza.



AZOKA

10:00 Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren Azokaren hasiera.

11:30 Debabarreneko Mankomunitateak antolatutako bilketa selektiborako sentsibilizazio-tailerra.

12:00 EKO errezeta bat prestatu eta dastatu egingo da, Chefintegrativa-ren eskutik.

14:15 VII. Kartel lehiaketaren sari-banaketa.

14:30 Feriako produktuez osatutako otarren zozketa.

14:30 Azokaren amaiera. Untzaga.



BERTSOLARITZA

17:00 Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Final-laurdenak. 14 euro (12 euro Bertsotzale Elkarteko bazkideak, 10 euro 6-18 urte bitartekoak). Coliseo.



ONDAREAREN EUROPA-KO JARDUNALDIAK

17:00 Sare eta konexio historikoak ardatz izango dituen bisita gidatua, euskaraz (18:30ean gatzelaniaz). Armagintzaren Museoa.

DOMEKA 20

IRTEERA

10:00 Ezkurak biltzera joateko irteera, Eibarko Baso Biziak-en eskutik. Untzagaatik abiatuta.



ASTEKLIMA

11:30/15:00 "Klima Azoka" esperientzia interaktiboa. Untzaga (euria bada, Errebal Plazan izango da).

MUSIKA

12:45 Usartza Txistulari Taldearen kontzertua. Untzaga.

ASTELEHENA 21

HITZALDI-SOLASALDIA

18:00 "Hitzaldi-solasaldia: No nos enfermamos, nos enferman: coloquio sobre Las herederas y la salud mental", Aixa de la Cruz Ventosa idazle eta antzerkigile bilbotarrarekin. Saio irekia. Andretxea.

MOBILIZAZIOA

19:00 "Genozidioa stop", Gernika Palestina herri ekimenak deituta. Untzaga.

EGUENA 24

HITZALDIA

10:00/12:00 "Necesitamos una nueva cultura del agua?", Leandro del Moral Ituarterekin. Ikasten elkartearen eskutik. Armeria Eskola (areto nagusia).

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emateentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

ERAKUSKETAK

Urriaren 20ra arte:

- "MNEMOSINE", Carmen Palomeroren artelanak. (Portalea)
- "MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK" (Armagintzaren Museoa)
- "AMAGANDIKO EDOSKITZEA" argazki erakusketa. (Topaleku)

Azaroaren 27ra arte:

- "ASTEKLIMARI buruzko interesgunea eta irakurketa-gidak. (Eibarko Udal Liburutegia)

Azaroaren 29ra arte:

- "LUMINIZENTEA". (Andretxea)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **19an:** 19:45, 22:30
- **20an:** 17:00, 20:00
- **21ean:** 19:30

“Los destellos”
 DRAMA



2024/Espainia/101'
 Zuzendaria: Pilar Palomero
 Aktoreak: Patricia Lopez Arnaiz,
 Antonio Torre, Marina Guerola
Familia/Gaixotasuna

2 ARETOA

- **19an:** 22:30 (Antzokia)
- **20an:** 17:00, 20:00
- **21ean:** 19:30

“Joker:Folie à Deux”
 ZIENTZIA FIKZIOA



2024/AEB/138'
 Zuzendaria: Todd Phillips
 Protagonista: Joaquin Phoenix,
 Lady Gaga, Brendan Gleeson
Thriller-a/Sekuela/Komikia

ANTZOKIA

- **19an:** 19:45 (2), 22:30 (2 Aretoa)
- **20an:** 20:00
- **21ean:** 19:30

“La infiltrada”
 DRAMA



2024/Espainia/118'
 Zuzendaria: Arantxa Echevarria
 Aktoreak: Cariolina Yuste,
 Luis Tosar, Victor Clavijo
Thriller-a/Terrorismoa/ETA

ANTZOKIA

- **20an:** 17:00

“Transformers One”
 ANIMAZIOA



2024/AEB/103'
 Zuzendaria: Josh Cooley Guerra
**Zientzia fikzioa/Robotak/
 Akzioa**



<p>FUNEUSKADI Simpatía Asistida</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funeraria del</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xizilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Ego-Gain, 2
943 558728

leku berri bat

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

**Zure publizitatea
 herriko aldiarikian**

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JON!**
Hillaren 22xan
4 urte beteko
dozuz eta. Patxuak
famelixan eta, ba-
tez be, zure arreba
Elenen partez.



Zorionak, **EIDER!!**
Atera txispak 8 urte
bete barrixerri. Asko
maitte zaittugu
lagun eta etxequak.
Musu pill bat!!



Zorionak, **JULEN,**
txapeldun.
Martitzenian
15 urte egin
zenduaz eta!!
Musu erraldoi bat
famelixaren partez.



Zorionak, **UNAI**
Arteaga, domekan
9 urte beteko
dozuz eta. Utah-ko
mutillik polittena
zara. Segi halako
jatorra izaten.



Zorionak, **DANEL!**
Etzi 4 urte beteko
dozuz eta. Musu
haundi bat fame-
lixa guztiaren eta,
batez be, Julen eta
Markelen partez.



Zorionak, **PAULA!!**
Domekan 8 urte!!
Ask maitte dogun
etxeko txikitxua
haunditzen doia.
Aitta, ama Lucia
eta amama.



Zorionak, **MIREN,**
bixar 8 urte beteko
dozuz eta. Musu
haundi bat
famelixaren partez.



Zorionak, **MIKEL,**
atzo 12 urte bete
zenduaz eta.
Musu haundi bat
famelixa guztiaren
partez.



Zorionak, **AITOR!**
Atzo 7 urte bete
zenduaz eta.
Maitte zaittugu.
Besarkada haundi
bat famelixa
guztiaren partez.



Zorionak, **EDU** (hillaren 16xan)
eta **ITZA** (hillaren 23an)! Ondo
ondo ospatu! Musu haundi
bana famelixa guztiaren
partez.



Zorionak, Ama(ma) **JAIRO, MARA**
eta **DANELE,** hil hontan urtiak
betetzen dozuez eta. Segi zuen
inguruak pozez betetzen.
Ask asko maite zaittuegu.
Etxekuen partez.



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 608401590.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein motako lanak egiteko eta nagusiak gauzez zaintzeko. 692808337.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 643766267.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 613215006.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 643085244.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 649623854.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Interna. 639107272.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Orduka. 613287661.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. 679912841.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632844780, 632768653.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 643464307.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile bezala, garbiketarak egiteko eta zainketarako. Esperientzia handia. 682737282..

4.2. Langile bila

- Taxi-lizentzia traspasatzen da Elgoibarren, jubilazioarengatik. Enpresa bezeroen-kartera Debabarrenan. 686234718.
- Kamarera/o behar da tabernarako. Interesa duenak pasatu Bako-Lekutik (Ego-gain, 2-4).
- Emakumea behar da nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizitzen (interna). 607540772.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Filosofian graduatuak (ingelesezko eta euskarazko C1 tituluduna) LH-ko eta DBH-ko klaseak ematen ditu. 688861740. Urko.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Elkarrekin gastronomikoa bazkideen bila. Lokal ederra. Roljokoak, zine kluba... Estaziño. badokelkartea@gmail.com

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA



TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
argentziak
610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK



J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com cta faxa:
943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Aziltain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PLAGEN AURKA



PLAGEN AURKARI ZERBITZUA
www.plaganatura.com
943 206 700
E-LAGUNA



943-206776

150 familia gertu duten okindegi baten bila dabilta.



Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta garajeak salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir